

TTiPi - TTAPPA

83KO UDABERRI-UDA





Foto: Xabier Landa

EULI BATEN BIZIA



"GU" TALDEAK EGINA

LAGUNTZAILEAK:

- BERAKO HERRIKO ETXEA**
- GURE TXOKOA S. C. R.**
- NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**
- PRINCIPE DE VIANA**

BAKARDADEA

Hitz tristea
bai ...
 hitz luzea
 hitz polita
 hitz mamitsua ...

Oso hitz baliagarria.
benetan ... benetan.
bai ...

BAKARDADERari ihes
egia bai ...
BAKARDADEari bildur.
egia bai ...

Urduri jartzen naiz
BAKARDADEarekin
topatzen naizenean

Topo egin dut, ¿eta zer?
hitzegin ... ¿norekin?
Neu (ni) nerekin. Eta zer?


Aurkitu naiz!, aurkitu naiz! alegia ... ¿non?
bide luze luze batean ...

nongo bidean noa?
Biziaren bidean nabil

Nolakoa da bidea?
oso zabala eta ederra, ¿zertarako?
pentsatzeko,
 ikasteko,
 aldatzeko,
 indartzeko,
 erortzeko,
 altxatzeko,
 maitatzeko,
 borrokatzeko,

Aurkitu naiz! Aurkitu naiz! Bakarra,
bai ...
egia.
bai ...
neu nerekin.

askamin



Liburu Zahar Honetan, ere

Bero sapa egiten du. Bazkal ondoan denak siestara joan dira. Eguzkialdeko belarra pikatuta daukagu eta arratsaldean buelta eman eta metatu beharra. Haize beroak ez du hatsa hartzera uzten. Izerdi tantak kopetatik hasi eta sudurtik behera itaizura bezala erortzen zaizkit. Ohean ezin naiz egon. Liburu zahar hartaz oritzen naiz. Ez dakit zergatik frantzes gerra nere burura datorkit. Eskutan hartu eta orriak pasatzen hasten naiz. Hirurogei ta hirugarrenean aurkitzen dut: "1813-ko ekaina. Frantzes armada Beretik iheska pasatzen da". (Argi utzi nahi dut, hemendik aintzineran liburuan dagon bezala idatziko dudala. Zihur nago Tipita-baitako Francisco de Arandia jaunak, orduko gauzetaz, nik baino agitzez gehiago dakielata).

"... Hura joan den asteleheneko egun argitzea!

Zer ote ziren lehen? Oihuak, maldizioak, zaldi irrintziak, fusilen eta zizpen zanpetak... Ez dakit. Ohatzetik salto egin nuen eta leihotik begitu. Etzen oraindak



argitu. Labigako bizkarra bai gorritzen hasia zen. Haizego epelak arbol hostoak mugitzen zituen. Hura egun sargoia! Enbata zaharren bat plantatzen ez bazen! Lepoa luzatzen nuen, biñon deus ezin ikusi. Bulla guzia Muxixun zubi aldetik zetorren.

Honetan, norbait etxe gerizian heldu zela ikusi nuen, maiz gibelerara begituz. Nere etxe aintzi naraino etorri eta atea zanpaka jo zuen. Nere bihotzak taupadako izugarriak eman zizkidan. Beiti jautsi eta, nor da?, dei egin nuen.

- Ni, Thomas.

Sistrikabaitako Thomas de Goyeneche zela jakin nuen. Atea ideki eta, kandela argian, zuri-zuri egina agertu zitzaidan.

-Zer duk?, galdetu nion. Zer pasatzen duk herrian?

- Frantzesak bazizik iheska, -doi-doi, hatsa ezin hartuz, kon-testu zidan-hemen heldu dituk zalapartaka. Agerrako bidea solda-doz betea duk. Batzuek hor ari dituk Mukixun zubian gurdi zahar bat zutik ezin altxatuz. Kaxernako guziak mugitu dire eta kanpotik sekulakoak datoz. Badakik gu biek zer nolako kargutan egondu gaitu-ken... Ni beinpen hemendik banoaie.

Hura izandu zen egun arriga-rria! Altzatako karrika, jendez, animaliaz gurdiz eta oihuz bete zen. Denda itsi nuen batzuen eta bertzeen beldurrez, ez bainitzen seguro horrelako joan-etorriekin.

Azkeneko bi egun hotan ez dut deus saldu; ezta ere iñor erostera etorri!

Saur, Ekaineren 26-a, giroa pixko bat aldatu da. Goizean-goiz Bastidako Juan Manuel Errandonea etorri zait. Frantzesen erretira-dan gain aritu gera. Ni biñon

obeki zekien herrian pasatutakoak. Batzuek denetara alletzen dire! Harek niri kontatu behar hemen, nere sudur puntean, suertu direnak! Frantzesak hemendik bialtzea ingle-sen meritua omen da, berak zionez. Santa Barbaratik enbata haizea bezala Kaxerna aldera etorri zi-rela, bertzeak erdilo zirelarik. Nik dudatan utzi nahi nuen bere ikuspuntua, biñon etzen deus egi-terik, ote zekien harek ongi!

Arroba bat gatza erosi dit, hameka errealetan; xokoltea eta esparzin pare bat, zazpi erreal eta hogeitau hamalau marauritan: dena, berrogei ta bederatzi erreal eta hogeitau hameka marauri.

Ateratzean, adio! erran dit, eta zaitu zure lepoa!

Horiixe bakarra nuen falta! Behorran gainean jarri, kapeloa alde batera okertu eta arro-arro joan da. Zer behor ederra duen!, burutan pasatu zait. Zenbatetan erosiko ote nioke?

Xorikeriak utzi eta beha-rrizkoa egin behar dut: Ekainaren 24-a arte Bortz Herriak zor dida-tena. Joan zen Maiatzan 3603 erreal eta 20 marauri aintzindu nituen frantzes armadari kontri-

buzio bezala. Sasoi horretan izen-
datu ninduten Sistririkabaitako
Thomas, Lesakako Macazega, Igantzi-
ko maistrua, Goyenecherekin batean,
koñtuak eramateko.

Orduzkerotik, Echelarko he-
rriak, ogibitan, 132 erreal eta
Berakoak, forma berean, 500 erreal
eman didate.

Ondoko hilautetan, bertze
gauzetan, 5128 errealetaraino
zorrak eraman dituzte.

Ikusi beharko da nola ordain
dezaten, gerra ondotik dena dese-
gina gelditu baita.

... Atean ondaskiak eta sega
kider batzuek zinzilikatzen ari
nintzenean, Saldesko Juan Thomas
Irazaqui heldu zen, zigarroa ez-
painean, galtza urdinak zapin
barrenean sartuak, esparzin zuri-
tan eta blusa beltz garbi batez
jauntzia. Lesacatik zetorrela
erran dit.

- Zer da Lesacan? Frantzesez
mintzatzen omen dire, zirikatu
nahi izandu dut.

- Frantzesez mintzatu, ez
dakit, biñon orain dator txarrena,
kontestu dit.

- Zer bada?

- Gorrotoak lehertzen hasi



"Tipita - baita". Francisco de
Arandia bizitu zen etxea.

dire. Zu adiskide zinela, horrek
etzidala lagundu, honek lurrak
ebatsi dituela... Ez da, ez, giro
polita.

- Konponduko da, erran diot,
elkarrizketa akautu naizik.

Bere laberako ladriloak ekar-
tzekotan gelditu naiz.

Erran didanarekin nere burua
nahiko estu ikusten dut, ni ere
herria eta frantzesen arteko harre-
manetan ibili naiz eta... Egun
batzuek kanpora joaten banintzake..."

Etxeko solairuan pauso ezagun
batzuek entzuten ditut, salako
atea kurrinka darioan ireki eta
nire gela aldera arin-arin datoza.
Atea poliki ukitu, eta:

-Mugi zaitetz, enbata atera
du. Belarra lerrakatu beharko
dugu, ez badugu bustitzea nahi.
Ordu baten buruan euria dugu.

Liburu zaharra isten dut
eta bere tokian sartu. Beste bat
arte!

LANDAXOKO

Euskaldunak izan gaituz

¹ Nago barrango indarrez
Zuri jolastu bearrez,
Entzun nazazu mesedez:
Arrotz jendia maite dezagun
Jaungoikuan legian lez;
Bañan gogo ta biotzez,
Izkuntza eta egitez
Euskaldunak izan gaituz.

² Euskaldunaren izena
Ludi guztiyan barrena
Degu izenik onena.
Burua gertu, biotza sendo,
Esan, ni naiz euskalduna,
Euskera degu aurrena
Aita eta amarena,
Beste guztiyek urrena.

³ Gure euskera baztertzen
Ainbestereño sayatzen
Guri biziya samintzen.
Ikast-etxe eta etxe askotan
Kampora dute botatzen,
Jaunari diyo eskatzen
Jarrai ditala laguntzen
Gaxo oyeri barkatzen.

⁴ Euskera naidet goizetan
Euskera arrats-aldetan
Baita gabaz ametsetan.
Euskera nai det bizi guztiko
Jardun eta tratuetan,
Euskera nai det gaztetan,
Euskera nai det zarretan,
Nai det azken otoitzetan.

⁵ Euskal erriya goratzen
Beñere ez naz aspertzen
Biotzez baidet maitatzen.
Euskal erriko edertasunak
Begiyak dizkit betetzen,
Jartzen banaz oartutzen
Sarritan zait bururatzen
Zeruetan ote naizen.

I. Larramendi

rrekin, Alde, alde, eskandalogeriak dabilta!!

Aldaketa izugarria da hoientzat eta askotan arrazoi faltarik ez dute, egia esateko. Aldaketa honen aurrean arrazoi batzuk aipatu genituzke, baina oso laburki egingo ditugu (datorren aldizkarian jarrai daiteke gai berarekin). Ba, izendatuko ditugu motibo batzuk, aldaketaren oinarriak esate baterako:

a) Emigrazioa. Baserria utzi eta herrira edo beharbada hirira.

b) Nekazaritzan edo abeltzantzian teknika berrien erabilpena.

c) Oihanen explotazioak. Lehengo gaztain ondo ederrak ipurdiz gora bota pinudiak paratzeke eta diru frexkoa sakelera-tzeko, lurraren eragina edo hondamena kontutan hartu gabe.

d) Industriegintzan herriak parte hartzea orokorki. Arantza herria hiltzeko arrazoirik garrantzitsuena hauxe da guretzat.

Gure aiton-amonen zailtasunik ez dugu bizitu, egia da; baina bertze zailtasun batzuen aintzinean aurkitzen gara jaun andreok. Aurrerapenak dakarzkigun zailta-

sunak benetan; hauek konpontzeko biderik al dago ?

1.- Baserrigintzaren etorkizuna aztertu behar.

2.- Oihangintzaren berpiztea edo geroa ikusi behar.

3.- Artzantzaren geroa ikusi behar.

4.- Industriegintza analizatu behar.

Ekintza hauen egoera ikusiz gero zeregin haundia dago Arantzako herrixka honetan eta nahiko buruhauste emango digun lantegia.

1983 ko apirilaren 20 an.

Ekaitz Elkarteak.

GEROZTIK

Neguko egun artan intxaurrondo urbilginan zu eta biok: eguzkia zurbil. Lurrean zenbait orbel aizeak darabil, gure barneko kezkek bil-ala ezin bil.

Zure begi goibelak nir-nir an-or, emen, nere negi argiok etziran argitzen. Otz elkarri esanda zenbait itz, elkarren maitasuna bertan zan bein-betiko eten.

Beingoan agertu zan irripar zabala zure ezpain gorrietan, itzok entzun-ala. Iges egin zenuen jasorik magala, begiz galdu zinudan andik bereala.

Geroztik zazpi urte joanak badira eta emen naukazu oraindik begira nere gogo barnean dabilta bira-bira zure begi-orgelak eguzki-argira.

Zaitegui eta Plazaola, Joaquín



Baratzako aitzurraren ttarra
ka ttarraka soinua, atton zahar
eta ume gaztearen itxaropena
hor daude, denak zure bidean.

Eta egunero, egunero goizeko
bosterdian jeikitzen den gizo
na, azkenean bere izerdiarekin
lortutako fruituak bilduko ditu.
Bere bizi guztia balitz bezalaxe,
defendituko du. Eskuak la--
rrutuak, eta hezurak nekatu
eta ia erdi pueskatuak, eta ala
ere ez zio faltako aurpegian
irripar zorientsu bat azkenean.

Eta beste leku batean, ez
oso urruti, beste famili bat.
Eguneko lanak bukatu ondoren su
tondoan eserita jarriko dira,
denak batean eta bakoitzak bere
berriak kontatuaz, pentsatuko
dute beste egun bat amaitu dute
la.

Udazkeneko belar legor, bere
usaiarekin alaitutako eguna,
zuregatik da; Lurra.

GIZONA ETA LURRA

Udaberriko loretxo garbia,
gorri eta txuria, zuregatik da;
Lurra.

Lehendabiziko bildotsa, ama-
ren ondoan, berotasunaren menpe
an dagoena, zuregatik da; Lurra,
Urrutitik etxera itzulzen
den betiko jendea, zuregatik da;
Lurra.

Haurtokin bihotzak ematen di-
tuen lehen taupadak, zuretzat;
Lurra.

Badakigu bai, lehentxio edo
geroxio denak hor bukatuko degu
la zeren gure bizitza eta gure
heriotza zureak dira; Lurra.

Ama gaxoa, lur gozoa, ume lez-
tana, euria hari du, lur emankor,
bular legor, egunsentia, attona,
etxea, alorra, zuhaitza, txoria,
errekatxoa, urribelarra, herria,
ohitura, soroa, belarra, goldea,
hazia, zizarea, hostoak, oteak,
sasiak, erortzak, satorrak, mal-
dada, loa, orlegi, ogia, pes-
ta, lana, odola, izerdia eta -
zorian.....

Lurra, ta lurra, ta lurra,
ta lurra, gizona, gizona, gizo-
na, biok betiko, bat bestearen
menpean; bat iltzen denean, bes-
tea basamortua, eta gizonak be-
re lurra desegingo du eta bera-
rekin bere bizia desagertuko -
da.

MAYTE PERURENA

xuri ta beltz



Izenak erraten duen bezala -xuri ta beltz- koloreak agintzen dute janari honetan. Maltrekan eta Bidasoa aldean ezaguna eta gogokoa denez ez dugu etsi janari hau honat ekarri arte.

Bertze aldetik berriz, herriko bestetan eta, hau jateko

* * * * XURITABELTX

ohitura handia dago arrunt goxoa baita.

Etxean egiteko ere ez da zaila baina hortara jarri behar. Egiteko era Elgorriagako, Estankukoei eskatu diegu eta hementxe duzue:



1.- Bildotsa edo ardi baten hertzeak hartu eta ongi garbitu ondoren, ura, gatza eta ozpin pixka batean ego*si*, xamurrak daudelarik atera.

2.- Hertzeak ongi xehetu hiru tipula eta perresil pixka batekin, eta dena ontzi batean paratu.

3.- Ondoren bizpahiru, doze-^{na} arraultze, gatza eta piper pixkat nahasten zaio, eta gero ardi hertzetan sartu. (Hertze hauek erosi ditzakezu saltzen baitira baina ez dira ardienak plastikozkoak baizik).

4.- Mantxo-mantxo egosten paratu (lehertzeko arriskua dute eta).

5.- Egosi direnean atera eta hozten utzi. Gero gaineko hertze azala kendu eta (bi zentimetrotako) xerrak egin. Honi, xuria deitzen zaio.

6.- Lurrezko ontzian tomate saltsa fin eta txuri hori paratzen da.

7.- Bildotsaren edo ardiaren odola, puskatu eta prejitu ondoren (beltxa) txuriaren gainera botatzen da. Bost minutuz egosi eta mahaierako prest dago.

Ardo ona eta gazta hobearekin otordu ederra egina daukazu.



*
*
*
"gu"
taldeak
bildua

GAU-LANEAN

**Tranzi estuk suertzen
ziren**



Javier S

Edozein moduz suertu nitzen
e stuna egunaz suertu zen:

Denbora hartan ia, handik
honat etortzen zen nilona, (hori
ia el año cincuenta i ta gehigo
zen) aduanatik etortzen zen.
Mugaino libre zen, handik, Fran-
tziko aldetikan. Bat joaten
ginen egunaz haiek hartzera.
Handik ekartzen zuten bien
abriekin, karroekin edo bien
bastatan ateitzen zuten mugara
(mugara ez gainera, utzitzen
zituzten behitigo zertaz muga-
raino etorri ezkerreko eltzetzuak
mugan kentzen baitzituzten ta
orduan kilometro bat Frantziko
alderago). Hek deskargatu ta
gorde ta han gelditzen ginen,
bat joaten baiginen altxatzera,
harek baitzituen ta han bertan
espetu. Bertzik joaten ziren
ilundu ta etxetik abitu, gabaz,
zertik egunak peligrosu baitzen.

Ta hala joeki nitzelik pa-
keti hoiek altxatzera, (udan zen
ta bero zen hagitz, ta atorra
aterik joaki nitzen orainikan,
ta bero) eta karabinerua atei
zaiten bidian (ia mugan mugan
atei zaiten) ta nik lasterka es-
kapo, aisa lasterka eskapo, ordun

eskautzen ginen aisa, gaztiak
eta. Ta nonbait etzen segidun
disparatzen hasi, nonbait etzuen
kargatua izanen dudik gabe ta
denbora pixko bat pasatu zuen,
ta denbora hartan nik, (mendia
garbi garbia zen) minutua edo
minutu pare bat edo zera, denbo-
ra hartan nik egin nuen, bide
aldi kozkorra egin nuen lasterka
ta hasi zen tiratzen, hiru rafa-
ga ta, eztakit nik, igual hogei-
tamar tiro, igual gehigo tira-
tzen izanextuen, ta jotzera gai-
nera e!, zergatik ezkerreko al-
dian lurra harrotzen zuen balak,
binon nola!, hiru rafagataino ez-
kerraldian. Ez dakit, etzuen ongi
apuntu dudik eztena, ta jotzera
ezagutu nuen ongi halere, jotzera
tiratu zuela, lurra hala harro-
tzikin. Ta bihamunian oainik
joan omen ziren bi pareja bila-
tzera, jo zuela: erori nitzen,
lehenbiziko rafagan erori nitzen.
Ogi kozkor bat bainuen kapazo
txar batian ta orainik hek ez
nituen utzi, hek bilu nituen ta
orainikan alde egin nuen bere
mendi mazelara sartuta. Sartu
nitzen behiti ta gorde nitzen ta
etzian gehigo tiatu zertik ez-
paitzian gehigo ikusten, bistatik

gorde bainitzen. Ta bihamunin joan omen ziren bi pareja, jo zula ta han behar zula izan, ta galtza puska harrautu omen zuten zerrakura batian, ni pasatu nitzen zerrakura batin, han harrautu omen zuten galtza puska. Bai larri ibili nitzen bai, dudik gabe. Eta atorra kanpora ateria joaki nitzen baino busti, busti, bustia ailetu nitzen paketak ailetu zituzten tokira. Ta paketak gorde egin nituen ta guziekin biajia egin ginuen.

Orainik ia ailetu zirelik, hemendik joan zirelik paketik eske, batek oraindik erraten zian: "hoiek, hoiek orain jotzera tiatuko dute ba" ta "etzakela, etzakela hori pentsatu" (hoiek pentsatzen hasizkero ezbaizten biaje egiterik). "Etzakela, etzakela

hori pentsatu, nik gaur hil behar banioken, han hilko nioken, dudik gabe ez nioken hil beharra ta; igual duk, hori pentsatzen hasten baiaiz, ez duk, ez duk. Hor hil behar baduk hortxe hilko haiz ta ezтик balio hori pentsatzen egoitia" orainik erran nion. Zertik ezpauzu hola pentsatzen ezbaizten joaten ahal, etzinen ibiltzen ahal; behar zenuen zere buruari: "bueno, aizu hiltzeko ordua ailetu baldin bada..."

Eta haltxen biajia egin genuen ta, bertze bidetik e!, aurront bertze mendi mazelara sartu, ta biajia ongi egin genuen gainera. Puskak entreetu genituen, Bidasun entreetu genituen.

"Gu" taldeak bildua

Nere

azken

egunak

¹ *Urtiak gayentzen,
Ajiak berretzen,
Azken egunetara
Naiz urbiltzen.
Belaunak nagitzen,
Begiak itsutzen,
Tristuraz biotza
Zait betetzen.*

² *Gaztetan ill nai ez,
Zartuta negarrez,
Nere deus-etzasuna
Eziñ gordez.
Betia nai-gabez,
Geroko beldurrez
Iltzia datorkit
Nai edo ez.*

³ *Utzirik tristura,
Yartzen naiz gustura
Gure goiko Jaunaren
Agindura.
Eldu zait denbora
Juateko zerura,
Aita betikuan
Ingurura.*

⁴ *Zeruan sartzia
Atsegiñ artzia
Dena gozotasunaz
Betetzia.
Animak bakia,
Gorputzak asia,
Beti-beti ongi
Bizitzia.*

⁵ *Otoitz bat Aitari
Zeruko Jaunari
Nere egille eta
Yabiari:
Begira Berari
Arpegiz arpegi
Betiko-tasuna
Izan bedi.*

I. Larramendi

Bostorri

Cincoenrama

Bostorri edo bost hostoko belar hau oso ezaguna dugu gure eskualdean. Oso errexa da ezagutzen; basamarrubien antzeko hostoak ditu baina gehienez bost hosto barrez agertzen da. Apirilatik uda-azkenera loratzen da, lore hori batzuk egiten ditu banaka banaka; loreak ere bost-hostokoak dira (hortik dator bere izena).

Belar honen zati guztiak onak dire osasunarentzat baina zurtenak eta hostoak erabiltzen dire gure alderdiotan.

20 edo 25 gramo belar heze litro bat urean egosita oso sendagai ona aterako zaizu almorranen zauriak garbitzeko edo larruko minak sendatzeko.

Almorranekin bazaude ur honetatik baso bat edo bideaten ahal duzu bederatzi egunez eta goizean bauririk zaudelarik.

Erremedio honek berak digestioa errazteko eta beiti-koa mozteko ere balio du. Zintzurko


mina eta ahoko infekzioentzat oso ona da ur honekin

gargarak egitea. Froga ezazu.


Edozein lekutan aurki dezakezu; bere leku egokienak: bide ertzeak larreak, eta leku hezeak eskatzen ditu ongi ugartzeko.

(Bu)

Bosthostokoa



REN TABIL ITATEA ???



Mundu honek gaur egun bidē berezi batzuetik eramaten gaitu produkzioko atal guztietan, industria mailean, nekazaritzan eta gaineoetan, rentabilitatea izanez bere helbururik nagusiena. Hau egiazkoa izateko badakigu asko produzitu behar dala.

Hitz batzuetan jarri nahi nizueke, nekazari mailean zer modutara agertzen zaigun prozesu berezi hau.

Benboran atzera begiradaka bat emanez, oroitzen gara gure

atautxi eta amatxik zer modutara eramaten zuten eben baserria. Eben familientzat janaria ateratzea zen garrantzitsuena, gaztainak zirela, artoa, patata, barazkiak, e.a. haiek ziran gure baserriarren produkzioak eta helburu horrekin antolatuta zegoen nekazaritza.

Gaur egun baserri gutxi gelditzen zaizkigu, jendea industrialdera joan zaigu, eta nekazaritzan gelditzen diranak aurrean esandako bide berezi hoiak jarrai-

tzen hari dira. Rentabilitatea da gaurko baserriren helburu nagusia.

Hune desberdinetan bizi gara:

- Gure aitonen lehenbiziko helburua bere familia mantentzea zen, beno gaur egun ere berdintsu gaude. Lehenbizi jan egin behar gero lan egiteko!

- Horretarako gure aintzinekoak eben txerriak artoakin gizentzen zituzten, oiloari ere oreka eta artoa ematen zioten, behieri belarra, lurreri gorotza, kisua eta suko autsa, e.a. Gaur egun txerriari, behieri, oiloari, eta abar "Pienso Compuesto" deritzen den errauts hori ematen zaie eta argi eta garbi dago lehenagotik gizentzen dirala, edo esne gehiago eman, edo arraultz gehiago egiten dituztela. Lurreri abonoak ~~da~~ insektizidak ematen zaizkie, e.a.

Lehen txerri batek ehun kilo artzeko urte bat behar zuen bezala, gaur urte erdi batez gizentzen ahal da, lehen behiak orain baino esne gutxiago ematen zuten, lehen letxuga bat ezin zan neguan jan, gaur egun adibidez, negutokietan ateratzen ditugu, e.a.

Garbi gelditzen da lehengo baserritarren fina eta oraingoa-rena ez direla berdinak eta horregatik abere eta lurrari ateratzen zaien frutu hori, tankera desberdinetan kentzen dela, teknika berriak erabiliz...

Aurkezpen txiki honen ondoren denak ongi ikusten dugu aurrerapen bat izan dala, behiak esne gehiago ematen dute, letxugak lehenagotik ateratzen dira, e.a., baino nere galdera da:


- EGIZ HAU AURRERAPENA AL DA ?

- DENBORA TXIKIETAN ASKO PRODUZITZEA, "RENTABILITATEA" HITZ BATEAN ?

Egiz rentableak izateko gaur egun explotazioak, erabili behar ditugu gure gorputzarentzat pozoia diran gauz asko, insektizidak, hormonak, abonoak ... eta gero eta gehiago ikusten ari dira munduan zehar gaixotasun bereziak pertsonetan, askoetan pozoi hoiengatik, horregatik nere galdera KANTITATEA ? hala KALITATEA ?

ASPALDIKO

(XATUR LARRALDE)



Sagardoa lehen erara, nola egiten den

Sagardoa azaroan egiten da, gazteluze, geza nabarra, geza xuria, mandaburua, pattulua, xarpa, piko sagarra, merkalina, mozöloa eta klase aunitzetako sagarrez.

Sagardoa egiteko bi kargatik goitira behar du. Karga batek hiru zako sagar edo gauza berdina dena sei konporta izaten ditu. Karga batek ehun litro mustilu ematen du.

Sagarrek dolarean zabalduz, sagar ondo basatiaren zurez egindako pisoiaz jotzen dire. Lan hau hiru jokaldiz eta bere pausoz egiten da, hondarrekoan pausoa desberdina ematen delarik. Jokal-

diak bi goiti eta bat behiti izaten dire, jo ahalean patsa beheko hondora bilduz. Ondotik paleikiaz edo zurezko palaz, patsa dolarearen erdira biltzen da. Gero ezarriak gainean eta ardatza urkan paratuz estutzen da, mustilua tinara joaten delarik. Tinatik garraldara eta handik kupelara eramaten da eta han irakinen du, sagardo bihurtu arte.

KUPELA PRESTATZEA

Kupela idorra egon baldin bada, egurra uhanditzeko urekin kontuko da. Garbitzeko ur beroz eta artakak betetzeko bilgor eta

goroldioz eginen dire. Mustilua bota aintzinetik, sagar errearekin oratzen da.

PITARRA NOLA EGITEN DEN

Lehenbiziko sagarrekin, uda lehenean egiten da.

Sagarrak jo ondoren, lehena-gotik ongi garbitua dagoen barrikan sartzen dire. Ondotik barrikarek betetzen da eta, zikinik ez sartzeko, zuloa zapi batez estaltzen da. Irakiten duenean, harek botatzen duen aparra kendu eta zoia zapiaren gainean paratuz, zuloa ongi itsi behar da. Pitarra ia egina den jakiteko, guti gora

behera hilabete baten buruan, argizariaz estalia dagoen zulotik pixko bat dastatzen da, taratuluaz zuloa idekiz.

Pitarra, neguan ere egiten ahal da, udan idortutako sagarrekin. Sagarrak idortzeko, xerra mehe mehetan pikatzen dire eta ondotik eguzkitan paratzen baita xinxilik lizta batean sartuak edo oihal baten gainean hedatuak ere. Pitarra egin behar denean, sagar xerrak ur beroan beratzen paratzen dire, bi egunez uretan kontuz.

Honen bertze lanak udan egiten den pitarrarenak bezelakoak dire.

"Gu" taldeak bildua

SAGARDOARI

Bedeinkatua izan dedilla sagardoaren graziya, bai eta ere kupira gabe eraten duben guziya: erari onek gizon askori ematen dio biziya: au eran gabe egotia da neretzat penitentziya.

Lenengo sartu tabernan eta ateratzen naiz azkena, egun guzian zurrutian da etzait betetzen barrena: au da erari maitagarri bat arras piztutzen naubena; Joxepa Karmen biotzekoa, bete anabigarrena.

Gosea ez det aundiya bañon agarriya bai ugari, nere barrenak naitasunikan ez diyo berriz urari; sortzen ditudan karto pitxarrak ematen dizkat tripari, nere denboran biziya kentzen diot zenbait sagardoari.

Gaitzik ez duben erari oni gogoz oi diot nik ekin, satisfazioz ez naiz arkitzen pitxar bat eta birekin; iru edo lau izaten ditut arratserako nerekin, tristura eta penak sendatzen ditut sagardoarekin.

Astelena det jai bat artuba pekatu mortalekotzat, astearten bearrerako gogorik egiten etzat: asteazkena, ai nere pena, oso pereza sartzen zat: modu onetan aste guziya alperkerian joaten zat.

Bart arratsean egin det amets len egin izan dedana, tabernatikan irten naizela txispatu edo edana: pausorik txuxen egin ezinda esaten nuben: au lana, golpatu gabe ez nindeke juan gaur ni andriarengana.

Kupelan dagan sagardoak dit ematen tentazioa, prezisamente eran bearra daukat persekuzioa: milla deabruz josirikako orain duben prezioa, zaleak asko geran medioz dauka estimazioa.

Eranago ta berriz naiago beti nago egarriyak, begi bitarte txarrikan ez dit egiten tabernariyak: emeretz len, au ogeigarren, amar atzo zor utziyak, markak kupelan egin, jaiean pagatutzeko guziyak.

RAMON ARTOLA LARRAÑA

(1831-1906).

Sukarra $\frac{\circ}{\circ}$

Osasunean egonik, edozein pertsonak bere gorputzean 36^otik 37^o ra bitarteko tenperatura izaten du. Hala ere, pertsona batetik bertzerera tenperatura hori alda daiteke.

Sukarrik badagoen jakiteko termometroa dugu biderik aproposena eta ez eskua kopetan paratuz edota kolore gorriak dituela erranez.

Temperatura leku batean edo bertzean hartzeak badu ikustekorik, desberdina izaten baita. Haur txikitik, ipurtxuloan paratuz, gero kontu emanez egon behar da eta kontuan eduki gero 5 dezima guttiago kontatu behar dela.

Besapean edo izter ondoan 37⁵ pasaz gero SUKARRA dagoela erran dezakegu.

Orduak ere badu ikustekorik, arratsaldeko bortzetan edo zazpitan gorenaren izanen du eta goizeko bi orduetatik seirak artean beherena.

Sukarra zer sortarazten du? Liseriketak edo digestionek, eguraldi beroak eta ejerzizioak nolabait ere tenperatura gortzen laguntzen dute, baina arrazoi garrantzitsuena ERITASUNEAN egoten da.

Pertsona batek sukarra zergatik duen jakitea du lehenbiziko lana, baina hori horrela baldin bada ere, sukarra kentzeko edo guttitzeko neurriak lehenbailehen hartzen hasi behar du eta prentsa haundiagoarekin haurra denean bada,

hauek desidratatzeko eta konbultsioak (dardarra izatea) muinetar ondorio txarrak uzten ahal ditzutenez, arrunt kaltegarriak izan daitezke.

Orduan zer egingen ba da?

I.- Maiz xamar edaten eman, ura, zumoa... desidrata ez dedin.



2.- Arropa guttirekin eduki eta leku berotik aparte. (Gure betiko ohituen kontra joan arren horrela egin behar da, berotasuna galtzen joateko).

3.- Freskarazi, bai! freskatu, eta hau aunitz modutara egiten ahal da:

- Eskuohial edo zapi bat ur hotzetan busti eta ondoren haurra, gaztea edo adintua bertan bilduz, minutu batzuk eduki ondoren idortu eta arropa guttirekin eduki.

- Alkoholakin gorputz osoa igurtzi.

- Eta bainatu ere bai, ez du inongo arriskurik eta. Ura 36^otan egonen da, hotz aldera beraz. Minuta batzuz egon ondoren idortu eta maindire hutsakin estali.

4.- Sukarra duena haurra baldin bada eta sei kilo pisatzen baditu haur-aspirina emanen zaio, supositorioaz ere eman daiteke. Pertsona helduek berriz aspirina normala hartuko dute.

Gauza hauek egin ondoren eta sukarrakin segitzen baldin badu medikuaren gana joko du. Dena dela, sukarra goittira joaten ez

da utzi behar erran dugun arriskuengatik, beraz KONTUZ!

(Garbitasun neurri ttiki bat: termometroa ibili ondoren beti garbitu ezazue).

Gu taldeak bildua.

MAITEAK ERRAN ZERAUTAN

**Maiteak erran zerautan
pollit nintzanez.
Poli-polit nintzala, bainan
larrua beltz, larrua beltz.**



**Maiteak erran zerautan
primu nintzanez.
Primu, primu nintzala, bainan
etxerik ez, etxerik ez.**

**Maiteak erran zerautan
moltsa ba'nuenez.
Moltsa, moltsa ba-nuela, bainan
dirurik ez, dirurik ez.**

**Maiteak erran zerautan
lanean nakianez.
Lanean, lanean nakiala, bainan
gogorik ez, gogorik ez.**

Izengabekoa


~IZORRATZAILE GALANTA~



Zahar eta gazteak elkartuak bizi ziren heuren inguruko arazoez ohartuz, eta errealitatearekin harreman estuetan. Errealitate goxo edo samin horrelaz ohartzea, influentzia arrarorik ez zegoenez errazagoa zen.




Oraindik izadia gozatzea posible zen, baita norberarekin harmonian bizitzea ere.




Egun batean, bertze tresnen artean, zientziaren aurrerapenak telebista ekarri zigun. Berau komunikabide liluragarria zen, ikaragarritzko posibilitateak zeuzkan.




Inoiz ez ikusitako gauzak, gure begi harrituak betetzen hasi ziren, bertze herrietako bizimoduak, paradisu galduak, jende diferentea ezagutzeko aukera.



Bainan jauntxo gosetu batzuek, telebistaren bidez heuren poltsak betetzeko bidea ikusi zuten. Edan ezak hau! Egin ezak hura! Ez arduratu! Jantzi ezak guk nahi duguna! Guk erranen diagu zein diren hire nahi eta beharrak.




Gure "behar eta nahiak" betetzen, eta sakelak hustutzen hasi ginen. Ez ziren gure jatzeko moduaz bakarrik arduratzen, behin heuren eskuetan lan hau utzirik, gure pentsatzeko moduez, arduratzen ziren.



Istonio fantastikoak, gazteen buruetan sartzen ziren, onak eta gaiztoak bereiziz, onak gure ohitura sakratuen defendatzaileak, gaiztoak berriz gure gizarte "baketsu eta zoriontsu" hau puskatu nahi zutenak.



..... eta denok, horien erranak zintzo betetzen dituzten Superman batzuk bihurtu ginen.



Xabier F.



Abentura luze

eta

berezi bat

Bizi osoa abentura bat baldin bada, bere barrena beste abentura aunitz ikusten dugu. Bakoitzak bere hasiera eta bere denbora betez gero, akitu egiten da.

Orain dela bost urte, beste lagun batekin abentura luze batetan sartu nintzen. Ez zen bi daia luze bat edo mendi famatu baten igoera. Bertze mota batekoa zen. Pertsona ezezagunekin bizitzea erabaki genuen. Edo hobeki erranda bi pertsona berrirekin. Ez genuen elkar ezagutzen, nola-koak ote ziren?, gizon ala emakumeak? Adinaren berri genekien bakarrik: pertsona berriak zirela. Honekin zera erran nahi dut: bide guztiak egin gabeak zirela eta erabakiak hartu gabeak. Beren askatasuna erabili gabea eta bizia, berriz, zehaztu gabea zeukaten.

Bost urte pasa dira eta orai abentura honetan bakarrik jarraitzen dut. Halere, hasierako lagun eta bertze pertsona aunitzek abentura hau aintzinerara eramaten laquntzen didate.

Eta bi hurrekin bizi naiz, bi alabekin hain zuzen. Elkar mugatzen dugu gure bizitza eta aldi berean aberastu. Eguneroko harremanak desberdinak dira, zer eta gu ere egunero desberdinak baikara. Beraien aldaketek nereak baino abiadura haundiagoa darama. Beraiak erakusten didaten mundu berriaren aintzinean eta aunitzetan txundituta sentitzen naiz.

Nere experientziak laguntzen dien bezala, beren begi gardenak berriz, mundua eta gauza aunitzetan beste itxura azaltzen eta herri-tzen didate.

Bizian zehar ibiltzeko, baditut betaurrekoak eta horrela izpi indartsuek ez naute itsutzen ezta ere minik egiten. Baina, lore tikienak edo kolore ezti-
nak ere ezin ditut ikusi. Nere alabekin, berriz, zera ikasi dut: iragazkirik gabe begiratzea mere-
zi duela, nahiz eta batzuetan min hartu.

Dena dela, elkar bizitzea ez da betiro erraza izaten. Eta aunitzetan abentura hau zama be-
zala somatzen da, leporatu dudan erantzunkizun hau, ezin baita hain erraz alde batera utzi. Nere lagunak bere partea utzi zuenean banekien neri karga gehiago tokatuko zitzaidala. Honela ere abentura honetan jarraitu nahi izan nuen. Eta aurrera jarraitzen dut. Elkarrekin bizi-
tzea, neretzat ez da behar bat, nahia baizik. Haiek ni gabe bizi litezke, eta abentura honetan nere ordez beste batzu sartu. Baina, erabakia gaur egun nere eskuetan dago eta elkarrekin jarraitzen dugu.

Poliki, poliki, gure harremanak, eadunero berriak direnez

gero, aldatzen doaz eta berdintasun gehiagoz kutsatzen. Honek zamari indarra gutxitu egiten dio, baita abenturari ere.

Gure ikusmirak berdinaoak egiten direnez gero, ulermena errezagoa da baina, harridura gutxiagotan agertzen da.

Halere oraindik hamabost urte gutxi gora behera gelditzen zaigu desberdintasunean bizitzeko. Eta gerorako nere asmoa hauxe da: harreman hauek ez desagertzea, aldatzea baizik. Orain, adin desberdinekoak garenez gero, aberasten goaz. Gero, urteak ez dute hainbertze garrantzirik izanen eta pertsona desberdinak bezala, beti, zerbait berria izanen dugu elkarri eskeintzeko. Eta ama-alabak izan ordez lagunak izan gaitezke. Orduan, abentura bertze bat izanen da eta harremanak jarraitzea ez da nere esku egonen, denonean baizik.

hilargi



DIBUJO M. C. ESCHER

BERRIAK~

"Natura" aldizkariaren bidez, herriz, zera jakin dugu: Nafarroako Diputazioak, Eskozia-tik 1.000.000 izokin-arraultze ekartzeko baimena eman duela Bidasoa birhornitzeko asmoz. Ez noaie gauza berririk erratera, baina iaz ibai honetan ez zen izokin gararik ere harrapatu, Bidasoak ez baitzuen kondiziorik betetzen. Bidasca iazko martxa ber bera darama aurten ere: depuradorak falta, zaborrak ugalde bazterretan, argi indarrak sortzeko dauden presak eta bere funtziorik bete gabe... Arraultzeak ekarri baino lehen ez ote da ibaiak kondiziotan paratu behar? Ez da deus egiten arraultzeak botaz gero hizirik ezin badite irauin.

BERRIAK~


Ba al zenekien gaur egun jendea gosez hiltzen ari dela? Gure planetan, azken 150 urteotako gerrateetan baino jende gehiago hil da gosez azken 5 urte hauetan. Erraz erraten da.

Nafarroan urtean 2.000 Tm. petroleo aurrez daitezke zaborren hautaketa edo selekzioa ongi egin eta ondoren, aprobetxatuta.

Madrilgo Moratalaz auzoan beira edo bidria biltzeko ontzi aproposak paratzeak polikiroldegi bat egiteko aukera eman diete.

("Natura" aldizkaritik).

BERRIAK.....



BERRIAK~

CODA-K (Hegaztien defentsarako dagoen koordinadorak) 1.982 ko urtarrila eta otsailean itsasobazterreko 1.624 km. egin ondoren 814 hegazti hilak bildu ziren. Zergatik hil ote ziren? Ba beste arrazoiren artean kutsadura edo kontaminazioarengatik. % 27,6 petroleoarengatik. Badi rudi, petroleoaren kutsadurarik haundiena Cadizko Golkoan eta Euskal Herriko itsasoan dagoela,

	Katalunya	Lev.	And. Med.	And. Atlan.	Gali.	Astur. Santand.	Euskal Herria
Egin diren kilometroak	113	581	245	308,5	323	33,5	20
Aurkitu diren hegaztiak	8	13	83	63	496	54	26
Hegzt/ km.	0,07	0,02	0,33	0,20	1,53	1,61	1,30

77777
 77777

BERTSOLARITZA

Inazio Larramendi

Andoaingo "Arrieta" baserrian harrautuko ditugu gure gaurko - pertsonaiaren zainak. Bertan jaio baitzen bere aita, Pedro Larramendi. Etxe berean, urte mordoxka lehenago, sortu zen, halaber, bertze gizon ospetsuaren ama: Manuel Garagorri Larramendi, jesuita - andoindar euskaltzale sutsuarena.

Familia ezaguna herri hartan, espartzin-egileak zirelako eta - karlistak izateagatik. Hoken etxe an egin^{ak} dire gudari txapela gorriek oinetan janzten zituztenak ere. Balioaren erdia jeneroa eros terakoan pagatzen omen eta gainerakoa gerra irabazi ondotik.

Hok eta gisa bereko hameka gehigo kontatu ditit Juan Larramendi-k, Inazio-ren seme pintore ospetsuak, goxo goxo, solasmodu egokiez, ardo xurrupe egin bitartean, bere aitaz galdezka joan natzaiolarik.

Gerran garaile izan beharrean, ordea, karlistek galdu eta zorrak hor. Egoera horietan ohi den beza la, Larramenditarrek Andoin-dik alde egin behar, kabi seguruagoaren bila. Horrela, arbolaren adarren arabera, zabalduko dire gure lurralde hotan barna. Horietako bat, Pedro, Beraraino ailegatu, gustatu, eta bertan laketu. Eliza ondo ko Periko-baita etxean segitu zion familiaren tradizioari, espartzinak egiteari, alegia. Bertan, urteak joan urteak etorri, familia hazi ere. Seme-alaben artean artearen alorra jorratu zuten bi: Luis, apez eskolapioa, eta Inazio.



Au da nere erriya

¹ Erri ttiki pollit bat,
Bera deitzen zayo,
Jaungoikuan mesedez
Emen nitzen yayo.
Erri pollita franko
Ludiyan badago.
Bera bezin pollitik
Inontxo eztago.

² Battu Eliza ederrak
Jauna goratzeko,
Battu Ikast itxiak
Burua argitzeko,
Battu lantegi onak
Dirua biltzeko,
Battu besta-tokiyak
Denak alaitzeko.

Juan-ek ez omen zuen atautxi Pedro ongi ezagutu. Hala ere bada kizki haretaz zenbait kontu. Pintore ona izaki bera eta izugarri erretrato adierazgarria egiten digu: Gerra galdu eta horregatik pertsegitua izan zen pertsona da. Horrek hagitz markatuko du, "erre" eginen du. Honela konpreni daiteke, neurri batean behinpein, bertze joera kreatiboak ez agertzea. Hala ere ezin ahanzi Larramenditarren odola zeramakielatzen zainetan, eta, geroztik, jenioko gizona zela, temperamentala, euskalduna, euskaltzale eta abertzale.

Nolako arbola halako ezpala. Soka beretik agertzen zaigu salda horretan mutiko koxkorra egin zen Inazio. 1874garren urtean jaioa, Etxalarko Asunzion Arburua-rekin esposatu eta amabi seme-alabaren aita izan zen. Andrea hil ondotik berriz ere ezkonduko zen. Zer ikusi hura ikasi, eta gisa hortara - espartzin-egile bezala lanari eman zion. Beratik alde Altzateko "Errikoitxia"ra, oker ez banaiz, eta han segi gauza berean, espartzinak eta oihalak saltzen. Bainan, desastre hutsa omen zen negoziariko, bi aldiz pentsatu gabe utziko omen zuen denda kantatzeko edo deitzen bazuten. Lehenbizi bokazioa gero negozioa. Gainera sobera ona omen zen. Ez omen zitzaion gustatzen komertzioa. Erosi-saldu horren tarteko marjena ta irabaziak ez zituen garbiegiak ikusten. Nonbait, ez zen horretarako mundu hontarat deitua. Hortaz gain, bertze gisako egitekoen kilika sentitzen izanen zuen bere barrenean.

Hain xuxen ere hiru omen ziren gizon erromantiko idealista honen bizi-ardatzak: Erljioa, musika eta euskara. Horietarako zuen grina adierazteko, Juan(ez da ixiltzen, hau solas-jarioa!) bere erre-kurtso guztiez baliatzen da. Bozari momentu bakoitzean dagokion indarra emanaz, behar den solasa behar den gisara, zenbapait anekdota kontatzen dit. Jaungoikoa nonnahi ta noiznahi "arrikonkon" eramaki zuen gizona omen zen

³ Abets itriak dittu
Toki zelayetan,
Baserriyak, galantak,
Mendi egaletan,
Diru pilla ederrak
Bere lau Bankutan,
Bake eta zori ona
Alde guztietan.

⁴ Zelai eta lur onaz
Da lenbizikua,
Azinda egokiyaz
Berdin gabekua,
Sagardi ta zugaitzaz
Ongi ornittua,
Beratarrak badugu
Zerekin poztua.

⁵ Bide zabal ugari
Erri ta mendian,
Emen gabiltz beribill
Eta su gurdiyan,
Inoiz asten bagara
Kampora abian,
Jesus erran orduko
Gaude Donostian.

⁶ Pozkariyoz beterik
Biar dizut erran,
Erri pollit unetan
Ezta goserikan.
Ikusgarriyak dire
Gure sukaldetan
Xerrikiyak xintzillik
Itxe guztietan.

heben aita. Gai

obsesiboa omen zen beretzat, heriotza ondoko "hura" beti gogoan. Musikaz zer erran "Ez desafinatzea", heken etxean hamekagarrren manamendua omen, hortik ateri kontuak! Eta euskara, beti euskara: "Oiga, Don Ignacio, me ha dicho....." erraka joaten zitzaion neska-mutiko euskaldun musikuari, beti kontesta bera: "Zu zer zera, eltzezen alaba(se mea)?"

Gizon xuxen eta fina bezala itxuratzten dute garai hartan ezagutu zutenek. Izugarri umila eta apala bere talentu artistikoa aipatzen zitzaionean. Abertzalea zen. Ezin zen bertze modura izaten aha Ikusi dugun bezala bere aintzinekoengandik xurupatu zuen euskara eta Euskal Herriaren aldeko sentimendua. Arrazoi hori dela bide aunitz sufritu behar izan zuen azkeneko gerran. Seme-alabak preso edo ihes eginak izanik eta berak ere hameka bidegabekeria, ziri eta, horrekin batera, larrialdi ekonomikoa jasan behar izan zituelarik.

Beti kantari aritzen omen zen.

Hagitz boz ona zuela diote. Berrogeitamar urtez kantatu zuen elizako koroarekin. Azken eguna arte, nahiz eta eri egon, zintzurreko minbizia zuen, ez omen zion kantatzeari utzi. Horrela, 1960 garreneko Abuztuaren 10ean, heriotzak berarekin eramane zuen.

*Bera eta Alzate
Auzo nagusiyak,
Bi motatan egiñak,
Biyek egokiyak,
Ibil-toki ederraz
Elkartuak biyak,
Erriko yende dena
Biltzeko tokiyak.*

*Erri edergarriya
Dugu Bidasua,
Urrungo tokiyetan
Ongi aipatua,
Arrayarik onenak
Dute mattatua,
Zembait diru ta poza
Guri garraitua.*

*Igande eta bertze
Besta guzietan,
Emen bildutzen gara
Bi auzo oyetan.
Batzuek oi dute dantzan,
Bertziak pillotan,
Aunitz, mattetasunan,
Goxoro izketan.*

*Izokiyak badire
Bidaso unetan,
Kilua saldu dute
Berreun pezetatan,
Nai badu yan bezate
Errege itzetan,
Diru ori sartzen da
Gure sakeletan.*

Ez da, guk dakigunez, bertsolari improbisatzailea. Pentsatu eta idazten omen zituen gure esku etara ailegatu zaizkigun bertsoak. Bertzalde, baliteke idatzi zuen zenbait bertsoeren musika berak - pentsatu ta egina izatea. Berri gutti dut puntu honetaz eta esker tuko nioke bihotzez informazio gehigo emanen lidakeenari.

Geroztik, idazlea da, idazle berantiarra, hirurogeitamarrak beteak omen zituen eskribitzen hasi ordurako. Ez zuen, bada, asti soberarik izan bere iturriko ur guttia xurtzen uzteko. Lastima. Berre lanak, denak edo parte, ez dakigu, Zarauz-ko "Icharopena" eman zituen argitara fetxarik ez duen liburuxka ttiki batean: "Olerkiak-Larramendi'tar Iñaki".

Bere pentsakizunak bertsoetan paratuko ditu. Buruan bueltaka ibilki zaizkionak botatzen ditu. Euskararen apolojia egiten du. Bere erlijiotasuna nonnahi ageri da (Juan-ek dio, sudurra zimurtuz, bertso guztiek dutela eliza-usaia)

Berako herriari kantatzen dio. Amatasunari. Bere buruari ("nere azken egunak"). Zenbapait gertarari ("Eztaietan", "Aurreneko jaun artzia"). Basurko eta Aldabe lagunei. Eta bertze ("Erlas-txoriyak", "Gutxikin poztu zaitia").

Neurri diferenteetan eskribitzen ditu bertsoak. Zortziko ttiki, Zortziko haundi eta Hamarreko haundi, neurri ezagunetan, eta bi neurri berexitan: bata, hiru bertso sailetan erabiltzen duena, zazpi puntutakoa, Paulo Yantzi-k "Afrikako gerrarenak" sailean erabiltzen duen neurri berbera; eta bertzea nik lehendabiziko aldiz ikusi dudana neurria: 6/6, 7/4, 6/6, 6/4; bertso sail batean bakarrik erabiltzen duen neurri hau: "nere azken egunak". Juan-ek kantatu ditit eta baliteke musika ere propioki berea izatea. Bertze gainerrakoak ez dakit zer musikaz kantatzen izanen zituen.

Euskaltzaindiak "EUSKALTZAIN - URGAZLE" izendatu zuen eta, beraz, garai hartako euskaltzaleekin hartu-emanak izan zituen. Irakurri ere euskaraz egiten zuen. Horren ondorioz lan gehienetan agertzen den euskara, arras konprenigarria eta herri-hizkera bada ere, ez da arrontean Berako euskara. Honen ordeaz garai hartako idazlanetan

*Bertze edertasuna
Larungo mendiya,
Zenbattek badakite
Emengo berriya,
Milloika da yendia
Unek ekarriya,
Bertatik ikusten da
Ludiyan erdiya.*

*Arrotzikan badago
Bertzuak aditzen,
Ziur nago, dagozi,
Berako zaletzen.
Atozte len-biño-len,
Ez egon luzatzen,
Beran bizi eztenak
Eztaki bizitzen.*

*Erresuman muga da
Mendiyan erdiya,
España da alde bat,
Bertzia Franziya,
Ikusten da Bayona,
Berdin Donostiya,
Mendi goizalientzat
Da zoragarriya.*

*Agur bero-bero bat
Kantak amaitzian,
Poztu beratar onak
Nerekiñ batian.
Bizi gattezen beti
Alai ta bakian,
Zeruratzeko deya
Etorri artian.*

Erlas-txoriyak

normaloagoa zen gipuzkerako hitzak erabiliko ditu(esan, dezu, dana, farrez, ziran,...) eta, hagitz bakan bada ere, aipagarria da tarteka sartzen zituen orduko zenbapait hitz berri eta adizkera berexi(Ludi, dagio,..). Dena den salbuespena bada eta horixe da Bera herriari dedikatzen dition bi bertso sailak, bete-betean Berako euskara erabiliz eginak.

Akabatzeke erran dezadan orain dela hiru urte, 1980garrenean, Beran Euskal Bestak izan zirela ehungarren urtemuga ospatu zenean, bertze bi poeta euskaldun berata-rrenekin batera bere bertsoak eta biografia argitaratu zituztela liburu batean, "Iru beratarren euskal bertsoak", Berako Don Joaquin Goya apezaren ardurapean.

Eta mila esker Juan-eri, bertze artista haundi honeri(Katea ez da moztu), neretzat izan duen atentzioarengatik. Arratsalde osoa aritu zait solasean eta des-peditu naizenean ideia hau zebil-kidan buruan:"Kostako zait horren xuxen eta polliki gauzak kontatze a,....", eta berari eskatu diot Ttipi-Ttaparako eskribitzea, aski ongi baitakit pintzeia bezain ongi dakiela idazluma erabiltzen. Ea hurrengorakotz animatzen zaren, Juan

KAPI.

OHARRA: Hemen aipatzen den azken liburu hau Berako Herriko Etxean saltzen da, 200 psta. balio du

⁴ Egun batian nengualarik
Etreko aldamiyuan
Bi erlas-txori polit-politak
Jarri zaizkidan albu
Bizi lekua eskatzen zuten
Euren izkuntza mutuan
Nere baimena agertu niyen
Ulertutzeko moduan
Beren kabiya egiñ zezaten
Biyok nai zuten lekuan

² Nere baimena bazenkatela
Igarri ziyotenian
Leku polita autatu zuten
Goiko soliba batian
Iltze aundi bat sartua zegon
Ez ortarako ustian
Erlas-txoriak konpondu ziran
Biyok elkarren artian
Kabiya egiten jarraitutzeko
Iltziaren babesian

³ Egun sentian asi ziraden
Bere kabiya egiten
Lur ezea ta belar legorra
Mokuetan zekarkiten
Lendabizi bat gero bestia
Biyak ipintzen zituzten
Zein lendabizi ta zein bigarren
Etzan iñori galdetzen
Ongi ikasiyak etorri ziran
Maisu bearrik etzuten

⁴ Amar egunez bukatu zuten
Asitako lantegiya
Belar ta lurraz egiñagatik
Gelditu zan egokiya
Umetruantzat iduri zuen
Zakartxo eta bustiyan
Bañan guraso maitagarriyak
Ondo zekiten gustiyan
Barren aldia jarri ziyoten
Egasti lumaz jantziya

⁵ Etze berriyan zeramakiten
Illebeta eskasian
Bost ume txiki agertu ziran
Kabitxuaren ertzian
Ao zabalik gora begira
Beti zerbaiten eskian
Aita ta ama jana garrayo
Egun bat eta bestian
Zenbat jorrada egin zituzten
Bostak azi bitartian

⁶ Ume txikiyak aunditu ziran
Luma zeukaten ugari
Bizkarra urdin distiratu
Aurre alde dana txuri
Aita ta ama pozez betarik
Burni ariyan kantari
Neroni ere alaitzen nintzan
Begiratzian ayeri
Al nun gustiyan egin niyoten
guraso ta umiari

⁷ Egun batian egatu ziran
Jayo ziraden kabitik
Alai zabiltzan etxe onduan
Bat bestiaren ondolik
Geroago ta urrutiyago
Utzi zuten sorlekutik
Azkenarako nonguk ziran
Juan zitzayen burutik
Ez esker onik ta ez adiyo
Alde egin zuten erritik

⁸ Txori auekin gertatu zana
Gerta ez dedin gurekiñ
Entzun zazute buru argiyaz
Eta biotz onarekiñ
Mesede asko artu ditugu
Zenbatsu diran nork jakiñ?
Jaungoikua-gandik gurasoetatik
Lagun urkoatik berdiñ
Mesede oyek ordaindutzeko
Egiñ dezagun alegiñ.

GURE MENDIAK

1983 ko maiatzaren 16.

Xabier Erro.

Pirineo, Auñamendi izenez ezagutzen ditugu Kantauri itsasotik Mediterraneo raino doazen mendiak. Mendi kate honetan alderdi bakoitzak bere ezaugarri bereziak dauzka.

Orokorki erraten ahal dugu Pirineoko mendi katea sei alderditan sailka - ahal daitekeela: Euskal Herriko Pirineoa, Mendebaldeko Pirineoko parte, - Aran Haranetik Andorrraraino luzatzen - den Pirineoa, Erdiguneko Pirineoa (Porsets-Maladeta aldeko alderdia) eta Ekialdeko Pirineoa (Katalunia aldekoa).

Euskal Herriko Pirineoa Kantauri itsasotik Anie mendiraino dioa, eta ez dago urak banatzen dituen mendi kate bat soilik, alde guztietara orientaturik dauden mendiska pila batzuk baizik.

Mendi kate honen barna, zentzurik gabeko muga bat jarri ziguten, Euskal Herria bi alderditan sailkatzen duen alderdik. Zentzurik gabe jarrita daukagun - muga horrek ez du uren dibisorio jarraitzen, askotan mendi gailurrak alde batera uzten ditu, erreka txiki batera jeisten da, ibai ondoan barna pasiatzen da, gero gorantz dioa, berehala zeharka iratze zelaien barna eta.... ez dakigu zein aldetan zauden, Ipar Euskal Herrian ala Hegoko aldean, zalantzarik gabe, muga honek ez du zentzurik.

Mendebal haizeak ekartzen dizkigun hodeiek, asko maite dute Euskal Herriaren bizkar ezurra eta edozein urtarotan ekaitz ederrak izaten dugu Auñamendiko gainetan. Neguan elurraz estalita txuri kolorez jazten dira.

Artzai bide anitz daude gure mendietan. Pixkanaka bide hauek asfaltoz estaltzen ari dira eta eskuragarri egiten dira auto gehienentzat. Salatu behar den gehiegikeri bat dugu arazo hau. Gainera autoz ez badira sartzen, orduan motorraz, leku guztietaraino.

Gure mendiak paketasuna galtzen ari dira, eta nahi gabe, gure gisarteak inposatzen duen "martxa" horretan sartzen ari dira.

Zarata, zaborra, zikinkaria ugari - edozein lekutan, hau bai progrescek inposatzen dute zerga dela. Salatu behar dugun beste gehiegikeri bat. Ziur egon zaitez gure mendiak beste lekutan egongo balira, askoz maitatu eta zainduago ak izango zirela, eta zalantzarik gabe zaramek zerbitzu bat izango zutela.

Oraindik denbora daukagu ez kutsatzeko gehiago eta obekigo zaintzeko.

Gure Pirineoa Euskal Herriko bizkar hezurra denez gero, baita Euskal Herriko birika ere bada. Oraindik tenore gaude okerrak eta skatsak zuzentzeko - eta gure birika zaintzeko.

ZAIN DEZAGUN GURE MENDIAK

ZUHAITZAK ETA INTSIGNIS PINUAREN KASUA

Igantziarrek, pasa den ne-
guan aste kultural bat antolatu
zuten eta bertan bertze gauza -
batzuren artean, Martxel Aizoa-
rua, biologoaren solasaldia.
Euskal Herriko zuhaitz eta me-
diei buruz arituz, diapositiba
bidez eta jendearen galdemoduen
erantzunak entzunez, berri -
franko bildu genuen behintzat.
TTIPI-TTAPA honetara ezin izan
dugu han erran ziren guztiak -
ekarri baina interesgarriena -
edo eta kuriosoena hemen heldu
zaigu.

" Pagoa, orain dela 4.500
urte zabaldu zen Euskal Herrian.
Mendi gainetan behin 500-700 -
metrotaraz gero pagadiak dauka
gu eta ipar aldetik hego aldetik
baino lehenago, hanka idorra eta
buru bustia behar omen du eta -
giro hori errezago aurkitzen -
baitu ipar aldetik.

Haritzak ere ipar aldetik
Makalak, haltzak... erre-
ka eta ugalde bazterretan daude.

Gaztaina berriz, Euskal
Herrian orain dela 2.000 urte
sartua izan zen eta dirudienez
erromatarren bidez. Geroztik -
gaztainondo aunitz galdu da tin-
ta izeneko gaitze harrapatu ondo
ren. Busca Isusi-ren idurirako
berriz, gaztainondoa patatak -
galdu zuen. Norbait, patata -
Euskal Herrian sartu aintzinean
gaztain jaten zen hasi urriruan
eta martxora arte baina patata
sartuz gero eta ia urte osorako
janaria aseguratzen zuela ikusi-
rik, gaztainondoen gaitzez axola
gutti.

Intxaurra, gaztainaren ga-
rai berean sartu zen.

Urkia berez, orain dela mi-
laka urte sartu eta oihan haundi-
tan zabaldu zen. Momentu hone -
tan berriz, kolonizatzaile pape-
ra du hau da, leku bat abandona-
tzen utziz gero berehala sortzen
da.

Nafarroan hego aldera joanez
badire bertze zuhaitz mota batzuk
hemen guttiago harrapatzen dire-
nak, horrela artea Irurtzun eta
Iruña aldera, ametzak ...

Pirineotan berriz, behin -
2.000 metrotik goitti ez dago -
ohianik, horrelako alturetara -
zuhaitz batek ezin baitu bizirik
iraun, elurrak adarrak hautsi e-
giten ditu eta hormak enborrak
leher erazi. Dena dela, goittien
joaten den zuhaitza mendi pinua
da, "pino negro" erderaz, gero
izeia "abeto" eta gero pagoa.
Izaba aldean berriz, beste klase
bat agertzen da pinu gorri izene-
koa, enbor gorrikoa " .

Intsignis pinuaren kasua -
arrunt interesgarria izan zen.
Jendeak gauzak jakin nahi zituen
eta galdemoduak bata bertzearen



Foto: Xabier Landa

gibeletik joan ziren. Jakin -
genuenez pinu hau orain dela 80
urte Kaliforniatik eta bizkai-
tar batek ekarria izan zen. -
Gehienbat Gipuzkoa eta Bizkaian
zabaldua industriaren kompeten-
tzia-erengaitik, baserri-
tarrek -
pinua landatu eta fabriketara
joan baitira.

Pinu honi buruz, jende -
aunitz mintzatu da, kalteak,
gaitzak, intsetizidak, hauen -
ondarioak, errentabilitateak, -
pistak egitea... Bainan, zer -
gertatzen da INTSIGNIS PINUARE-
KIN? ZE KALTE DAKARTZA?

" 1.- Pinu hutsa paratzea.

Eman dezagun Nafarroa osoan garia
dagoela eta ez dagoela zuhaitzik
ez sasirik eta eta bertze lan-
darerik, bakarrik garia ereiten
dela, eta gari hori gaitzak ha-
rrapatzen duela, etsairik eduki-
ko ez lukeenez gero, ez txori ez
zomorrerik alderdi horretatik -
izugarritzko kalteak etorriko li-
rateke. Ekologi aldetik begiratu
ta zenbat eta barietate gehiago
egon orduan eta establegoa da -
gauza; hariztia, pagadia, patata,
garia, pinadia izatea ekologi -
aldetik establegoa da gauza ba-
karra paratzea baino. Zer gerta-
tzen da? Errate baterako pinadian
gaixotasuna sartzen bada (proze-
sionaria) hurrengo pinadia urruti
baldin bada go ez da hain errez
pasako eta gaitza hor bertan gal-
duko da. Gipuzkoa eta Bizkaian -
gertatu dena zera da, leku guztie-
tan sartu dutela pinua eta pinua
bakarrik; hau inestablea denez -
gaixotasunak errez sortu eta errez
zabaltzen dira. Beraz, pinuak egin,
dezakeen kaltea pinua bakarrik pa-
ratzea izanen litzateke, ekologi
aldetik begiraturuta arriskutsua.

2.- Ekonomikoa. Intsignis -
pinua papera egiteko hutsa balio
du eta egun edo bihar papelerak
itxiko balira, zer egin hainbertze
pinadiekin?. Eta beraz, kontuz ibi

li behar da gauza baterako balio
duen zuhaitz batekin. Eukaliptusa
ere kasu berean dago.

3.- Pinuak lurra hondatzen duen
beldurra dago. Belategietan errate
baterako, azaleko kapa lur beltza da
eta hor badago usteltzen ari den -
zerbait, hostoak, belarrak, zainak,
ongarria,.. eta gainera zomorro -
aunitz dago, xixareak, arrak, mikro
bioak. Horiek usteltzean alimentu -
bihurtzen dira, eta euria egitean
behetti joan eta landare edo zuhai -
tzen zainak hartu egiten dute, hostoak
eta fruituak izateko. Uda-
kenean hosto horiek erortzen dira eta berriz usteldu
zirkulua itxiz. Pinudietan zer gerta-
tzen da? Pinua horria ez da hariztia
edo pagoarena bezalakoa ez da hain-
errez usteltzen eta pilatuz doaie.
Pilatzean sortzen da giro oneko azidoa
eta lurra ere azidotu egiten da, orduan
goittiko lur beltz horretan sortzen
den alimentuari ez dio kontzen eta
euria egitean urak eramaten du
eta lurra pobretu egiten ez ote
den beldurra dago.

Gipuzkoan orain dela 2 urte estudio
bat egin zen eta ez zen gauza argi-
rik ikusi, nunbait estudio hori egi-
teko konparatu egin behar zen, hau
da, pinudi bat zegoen leku eta kon-
dizione beretan harizti edo pagadi
bat egotea eta ez zegoen. Hala ere
estudio horretan zera ikusi zen:
pinudiak mesede egin ziola lurrari
aberastuz; eta ez da harritzekoa,



gure baserritarrek gehiegi explota-
tu baitu oihana: iratzea metatuz,
orbela bilduz eta gero baserrira
eramanez. Bainan gero belategira
ongarria eramaten den bezala sekulan
ez du oihanera eraman, eta noski
oihanak sortu duen janari guztia
baserrira eraman ondoren nekatuak
gelditu dira, lur hori azkena jotze-
raino ahulduz. Pinuarena berriz
abandono bategatik izan denez, hau
da, pinua landatu eta baserritarra
herrira joan denez gero, pinadiari
hor utzi dio bere belarra eta bere
iratzea.

Baina, zer gertatuko ote da hemendik
aintzinerara? Orain dela 2 urtetako es-
tudio bera hemendik 5 urtetara eginen
balitz eta leku berean, ikusiko ge-
nuke zer gertatuko litzekeen. Aleman-
ian errate baterako hau gertatu da;
lehen pagadia zen lekuan pinua landa-
tu dute eta orain leku horretan ezin
da pagorik sartu, pinua hutsa etor-
daiteke eta. Lur harek kapazitate bat
galdu du. Hemen gauza bera gertatuko
ote da?. Diferentzi bat dago, gu giro
epelean bizi gerala eta Alemanian
hotzean. Eta hotz haundia egiten due-
nean pinu horria gehiago pilatzen da
eta ez da hain errez usteltzen, xomo-
rro eta holakorik ere guttiago egoten
baita.

Beraz, lurraren afera hau ez da txan-
txetakoia, baina bai oraindik estudiatu
beharrekoa.

Hemengo baserritarrek erraten dutena
hau da: "bai, lehendabiziko pinudia
ongi heldu zen, bigarren hau ez da
hain ongi etorri". Zer gertatu da?
Hasieran jende aunitzek sartu zuen
belategietan, sagastitan, alimentu
aunitz zegoen lekutan eta ongi etorri
ere. Baina gero, nola explotatu dira
oihanak? Ba, matarrasa erraten zaiona
egiaz, hau da, hartu dena eta moztu
tronkoak arrastan eraman, zuloak egin,
eta lurra dena bilusirik utziz, horre-
la egonik euria egitean ba gaineko lur
aberats guztia urak eramaten du eta
nun sortuko da bigarren hori?. Lur
bilutsian noski. Oihanetan, matarrasa
debekatu egin beharko litzateke, -
200-400 urteko lur azala bat batean
deseginda gelditzen baita.

Pinuaren asuntua ez dago batere argi,
lurrean kalte egiten duen alderdi ho-
rretan behintzat, baina bai gaizki
explotatzen dela baita gaizki zaindu
ere. Dakigunez, pinu hutsa paratze -
horretan dago benetako kaltea eta
hemendik urte batzutara lurrean zer




Foto: Xabier Landa

kalte egiten duen jakinen dugu.

Pinudietan eta horrela ez uste arren
iratzea ongi heldu da, iratzea naiko
azidozalea delako.

Plan berriak ere egiten ari dire,
hala nola, pinua bakan sartuz, eta
ez juntu-juntu, kasu honetan aguzki
rik ez baita sartzen eta ez da be-
larririk ateratzen. Bakan paratuz gero
berriz, belarra ateratzen da eta
iratzea errez galtzen da, aski iza-
ten da urtean bi moztaldi ematea eta
desgaraian, gehiago ez ateratzeko.
Belarra izanez gero, haziendak sartu
daitezke eta plan honek ondorio
onak eman, horrela oihana eta artzan-
tza edo larrea konbinatu baitaitezke
Alde batetik, pinu horri guttiago
beraz azidotzeko arrisku guttiago
eta bestetik haziendak hor ibiltzean
ongarria bertan utziz, haragia
produzitzeko ere sistema ona litza-
teke "

GU taldeak bildua

Xorroxin Irratia

Irratia aspalditik genuen amets bat da. Egun batean amets hori errealitate egin gehar - genuela erabaki genuen herriko gazte batzuk. Poliki, poliki, - goroutza eman diogu eta sortu - denari XORROXIN deitu diogu. Erratzun dagon Herri irratia. Irrati irekia, herriak herria - rentzat egiten duena. Bertan - gauz ttiki ta haundiak sartzen dira. Batzun bertsoak, besteen ohiuak, haien ametsak, hire erre - bindikazioak, denak badute lekua.

Gure hizkuntza, erabiliz komuni - kazio tresna bezela, gainerakoa irekia dago bakoitzen imaginazio edo errealitatera. Hemen denok egile gara eta denok entzule. Horrela sortzen diren edo dauden kontradizioak gainperatzen ditugu, (gainperatzeko asmoa dugu).

Onda libreko irratien filosofia dugu "Askatasun haundia denontzat" irratia egin nahi dutenentzat. Zertaz?



Hiru arrazoi garrantzikoak eta beste auñtz ttikiagoak izan dira, bidea eman dutenak XORROXIN IRRA - TIREN sortzeari (jaiotzari).

1.- "KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIOKO TRESNAK MONOPOLIZATUAK EGOTEAK". Orduan entzuten dugu berek nahi dutena, eta berek dira, gehienbat behintzat, era bat gauzak berdin sehitzeko indar egiten dutenak.

2.- HERRITAR KULTURA PUSKATZEN - HARI DIRELA KOZ ETA BATEZ ERE EUS - KALDUN KULTURA". Adibidez, Bazta - nen, ohartu gera gutxi irakurtzen dela eta kultur aldetik utsune - haundia dagola. Eta euskaldun - kultur aldetik beqiratzen baduqu

oraindik haundiagoa. Gaurko egu-
nean telebistak eta irrati nazio-
nalak (Radio Nacional de España),
gehienbat ikusi ta entzuten dira.
Bertan, berriak eta saioak denak
erderaz ematen dira, eta konteni-
doak ere ez dira aberatsak, "uni-
formetzaileak" dira. Gure herria-
ren kultura, jendearen pentsaerak,
ohiturak, kontradizioak, eta burru-
kak isildu edo apalduak agertzen
dira. Nortasuna eta norjabetasuna
(pertsonek eta herri bezela) galtzen
goaz piskanaka eta era bat ohitura
eta bizi modu "STANDARD" bat hartzen
hari gara. Horrela sehituz hemendik
urte batzuetara Ipar Ameriketara edo
Japonen ohitura bertsuak izango di-
tugu, gure nortasun propioa galduz.

3.- "SUJETO PASIBO" batzuk iza-
tera kondenatzen gaituztelako.
Burukide guztien artean hautatu
eta antolatzen dituzte programak
eta irratiaren lan egiteko "pro-
fesional del medio" behar da -
izan lehendabiziko eta oposizio
gogorak pasa ondoren eta gero
ere burukide edo sisteman aurka
ezin da joan. Beste aldetik, -
jende gehieneri, kalerako jende-
ari "sujeto pasibo" batzuk iza-
tera kondenatzen gaituzte gure
joka bidea bakar bakarrik ikusi
edo entzutea da, beti espektado
re bezala.

Hau hola izanik, guk erabat
desberdin jokatu nahi dugu. Lehe-
nago idatzi dugun bezela "onda -
libre" deitzen diren irratiak -
mailan sartzen gara, filosofia
berakin sortzen baigera. Onda -
libreko irratiak PROGRAMAK (saioak)
EDOZEINEK egiten ahal ditu -
E-D-O-Z-E-I-N-E-K-. Eta bakoitzak
edo taldeak egiten dituzten saioe-
tan ez da murrizpen edo zentsurarik

ASKATASUN osoa denontzat, bere
saioekin egin dezan nahi duena.
(Hala ere naiko murrizpen izaten
dugu beste alde batzuetatik).
Beno, rolo haundia sartu dizue-
gu eta ordaintzeko, bakarrik -
gogoratzen dizuegu eratea ikuste-
ra etortzeko XORROXIN irekia dago
la nahi duzuenentzat.

Orain geldituta kontzen digute,
baino espero dugu hilabete barrun
! a tope! egotea legalitate baren
sartuko gaituztela erran digute.

TTippi-TTappa,ko idazle eta ira-
kurtzaile, nahi duzuenako XORROXIN
zuen eskuetan. Denon artean egin
behar dugu irrati bat baita.

Agur,

Xorroxin "Baztango Herri Irratia"

Gure eskualdeko kutsadura



E.G.B. ko 6.eko ikasle batek eginak

Sarrera

Mundua hagitx kutsatua dago, ibaiak, mendiak, dena.

Pais guztietan ekologi taldeak badira kutsadura hau kentzeko. Fabrikak, azidoak eta zikinkeriak botatzen dituzte ibaietara, eta mendietan karreterak egiten dituzte. Baina ez dute heurek bakarrik mundu guztia zikintzen, denak baizik.

Galdetuko duzue nola, ez? Bada, paperak eta gauzak lurrera eta ibaietara botatzen.

Denak mundua garbia edukitzeko lagundu behar dugu.

Guk ez dugu mundu guztiaz solastu behar, bestela tinta akautuko zaigu, eta hori ez gertatzeko gure eskualdeaz solas egingen dugu, Laruneko karreteraz, Bidasoa ibaiaz, eta lurrera eta ibaietara botazen ditugun zikinkeriaz.

Bidasoa ibaia.

Bidasoe ibaia hagitx kutsatua dago orain. Lehen bainatzen ahal ginen, baina orain fabrikak eta guk botatzen ditugun gauzakin ezin da bainatu.

Ibaia, batzuetan olioaz eta gasolinaz

betea egoten da, eta horregatik arrai aunitz hil egiten dira.

Ibai hertzean zikinkeri aunitz izaten da, eta horiek usai txarra botatzen dute. Zikinkeriak aipagarrienak, zapata zaharrak, tela autsiak, basuraren boltsak, e.a. Horregatik Bidasoa ibaiaren hertzean biziden jendea usai txar eta sikinkeri horretara ohituratu behar da, eta harat joaten den jendeari ez zaio gustatzen usai hori.

Zikinkeri horrek gure ibaia itsus-itsusia uzten du, eta ahal dugun guztiak egin behar dugu zikinkeri hori kentzeko.

Beste arazo bat Larunekoa da.

Larungo karretera

Larunera joateko bidea, karretera bihurtu nahi dute.

Jende aunitzek, karretera egitea nahi du, baino gehienak ez.

Karretera bat egiten badute, mendi guztia ondatuko dute, eta hori ez da txarrena ondore ona ematen badu, beste mendietan ere karretera paratuko dute, eta horrela natura guztia ondatuko dute.

Karretera hori ez egiteko izenpeak eskatzen aritu dira, eta firma aunitz bildu dituzte.

Karretera egiten badute animaliak karreterara aterako dira, berebilak arrautuko dituzte eta nagusiari ez dio inork pagatuko.

Berebilak karreteran ibiltzean gasolinakin eta horrelako gauzekin dena kutsatuko dute, eta paisai guztia ondatuko dute. Guk ez dugu nahi karreterarik!

Lurrera zikinkeriak botatzea.

Guk lurrera paper bat botatzea uste dugu paper batengatik ez dela deus gertatuko eta horrela bakoitzak paperak botatzen lur guztia zikintzen dugu.

Paper horiek lurrera bota ordez paperontzira botatzen bagenituen dena hagitzez garbiago eta politagoa egongo zen. Aunitzetan erraten dugu ez ditugula paper gehiago lurrera bota behar, baina nahi gabe botatzen ditugu.

Ahal duguna egin behar dugu arazo hauek konpontzeko, eta bakoitzak bere partetik pixka bat paratzen badugu konponduko ditugu.

Marta Irazoki eta
Txaro Zubieta 11 urte

IRURITAKO GAZTEEKIN HIZKETAN

Joan den maiatzaren 11etatik 14arte ospatu ziren herriko bestak Iruritan, eta orain mintzatu behar gara baztandar herri hontako gazteekin.

-Ttipi-ttapa.- Zer izan zen jai hauetan?

-Iruritako gazteak.- Dantzaldiak egunero, bizikleta lasterketa, dantzariak, mutildantzak. Ezin genuen gauz askorik ekarri, diru aunitz ez genuelako.

-T.T.- Zein izan da jaien aurrekontua eta nondik atera duzue diru hau?

-I.G.- 600.000 pezetakoa izan da. Dirua zozketatik atera dugu, gazteek eta etxeetan ematen digute dirua, udaletxeak herriarentzat. 40.000 pezeta ematen ditu eta erdiak bestetarako izaten dira, barrakak ere zerbait ordaintzen dute.

-T.T.- Esan duzue zozketa bat egin duzuela. Zein izan dira sariak eta zenbat zenbaki atera zenuten?

-I.G.- 11.000 zenbaki atera genituen, bakoitzak 25 pezeta balio zuen. 75.000, 30.000 eta 10.000 pezeta sariak izan ziren.



-T.T.- Aurten ospatu da XXX bizi-
kleta lasterketa. Hau ere zuek
antolatzen al duzue?

-I.G.- Ez, hori ziklismo elkarte
batek antolatzen du. Eguberritan
saski zozketa bat egiten dute. Las-
terketa hau 100.000 pezeta baino
gehiago kostatzen da.

-T.T.- Zein txistulari ekarri ze-
nuten?

-I.G.- Larralde eta Felix Iriarte,
Arizkundarrak.

-T.T.- Nola eratu zineten jaien
egitaraua antolatzeko?

-I.G.- Lana sailka banatzen da.
Talde bakoitzak egun bat antola-
tzen du. Sail bakoitzatik pertson
bat edo bi ateratzen dira taldeen
koordinazio eratzeko.

-T.T.- Nork eratu zuen zikiro jatea?

-I.G.- Angel Etxenike eta Martin
Gamiok egin zuten. Mahiak, aul-
kiak, e.a. Baztandarren Biltzarrak
utzi zigun. 70 lagun bildu ginen.

-T.T.- Herriko jendearen lankide-
tza izan al duzue?

-I.G.- Bai, neska eta mutilen artean
bestak antolatzen ditugu. Hemen,
batzorderik ez dugu egiten

-T.T.- Kioskoa eta banderak nork
eta noiz ipintzen ditu?

-I.G.- Kioskoa bi larunbata lehen
jartzen da, eta banderak larun-
bata batean. Herriko gazteak
jartzen ditugu eta bakarrik bil-
tzen gara asteamaietan, gehienak
kanpoan lanean jartzen garelako.

-T.T.- Kanpoko jende asko etorri al
zen?

-I.G.- Larunbata eta igandean
asko. Beste egunetan ere, baina
ez hainbeste.

-T.T.- Beno, eskerrik asko. Esate-
koa dago oso ongi igaro genituela
jai hauetan. Agur.

-I.G. Ia datorren urteko jaiak
hobeki ateratzen diran.

ZUZEN KARRASKEDO
eta JOSEBA ANDONI IRURETA

Eztaietan


*Ikusten ditut sarritan
Senar emazte pozetan
Zillarrezko eztaietan.
Jainko aundiak lagun deiela
Eginkizun guztietan,
Osasuna gorputzetan
Maitasuna biotzetan...
Beste berrogei urteetan.*

I. Larramendi


BERA ETA EUSKARA eta (III)

Bi azkeneko numerotan ikusi genuen euskara ikaragarriko beherakada ematen ari dela Beran. Alde batetik guraso aunitz badela euskaraz ez dakiena, eta bertze aldetik (eta hau okerragoa da oraindik) dakitenen artean badirela aunitz beren seme-alabei euskaraz erakutsi ez dietenak edota nahiz erakutsi euskaraz mintzatzen ez direnak.

Halera, daturik tristeena hau da, 11, 12 eta 13 urteko neska-mutikoak nahiz euskaraz jakin eta nahiz batzuk beren gurasoekin mintzatu, elkarren artean hagitz guti solasten direla euskaraz. Mutikoak ehunetatik lau bakarra solasten dire euskaraz elkarrekin eta neskek ehunetatik bi bakarra. Gainerako guztiak erdaraz ari zaizkigu. Kanpoko herritako neska-mutikoekin gehixeago solasten dire euskaraz: mutikoak ehunetatik hemezortzi eta neskek ehunetatik lau bakarra.



Eta kontura gaitezen -
neska-mutiko horiek biharko gura
soak ditugula eta orain hain gu-
ti baldin badire euskaraz dakite
nak eta aunitzez gutiago orain -
dik elkarrekin euskaraz solasten
direnak, zer erakutsi behar die-
te horiek beren seme-alabei?



Bertze datu bat telebistarena dugu. Betidanik aditu-
katu dugu telebistak zerikusi haundia duela euskararen galera-
rekin eta inkesta honetan ere halaxe agertu da: euskaraz ez da
kitenek, edo nahiz jakin euskaraz solastu nahi ez dutenek, da
kitenek baino aunitzez ordu gehiago pasatzen dutela telebista-
ikusten. Honek zera erran nahi du, zenbaterainoko inportantzia
duen euskarazko telebista martxan paratzeak eta ikusi ahal iza-
teak. Eta hori ere indar guziz galdetu behar genuke euskara -
zertxobait istimatzen badugu behinepein.

Lehengo bi numerotan ematen nituen datuak eta gaur -
koak laburtuz, hauxe ikusten dugu: euskarak Beran azken urte -
hauetan beherakada handia jo duela.

Lehenbiziko beherakada gurasoen mailan ikusten dugu:
bortz gurasotatik hiru t'erdik bakarrik baitakite euskaraz.

Bigarren beherakada: euskaraz badakiten guraso horiek lauetatik hiruk erakutsi diete euskaraz beren semeei eta lauetatik bik bakarrik beren alabei.

Laugarren beharakada: aita eta ama elkarren artean - euskaraz aritzen diren kasu horiek bakarrik hartzen baditugu, = haxe agertzen zaigu: horietatik bortzetatik lau aritzen direla euskaraz beren semeekin eta erditsuak bakarrik beren alabeekin.

Bosgarren beherakada: mutiko eta neska horiek, nahiz erdiak baino gehiago - euskaraz jakin, mutikoak ehunetatik lau ba karra aritzen direla euskaraz herriko lagu nekin eta ehunetatik hemezortzi kanpoko he rritako lagunekin. Neskak, berriz, ehuneta a tik bi herriko lagunekin eta ehunetatik lau kanpoko herritako lagunekin.

Euskararen egoera, bada, nahiko ilun eta tristea da gure herrian. Baliteke orain, ikastolak direla eta, euskara - zerbait indartzea; baina horrekin bakarrakin deus guti egingen dugu, gero karrikatan, lantegitan, etxetan, ostatutan, eskoletan... sartzen eta erabiltzen ez badugu. Bai, partxe batzuk emanen dizkiogu, baina lehentxeago ez bada geroxeago euskara hil egingen zaigu. Goazen bidetik segitzen badugu, Beran eta ondoko herrietan euskarari urte gutitarako bizia gelditzen zaio.

Eta neretzat tristeena zera da: ez garela konturatzen, euskaraz dakigunok beti erdaraz mintzatzen garenean, gugeune ari garela euskara baztertzen, hondatzen, desegiten eta hilerazten. Inoiz ernatuko ote gara?

PATXI.

BIZITZA

Zuhaitzako ostoa
erori da,
hibaiak eraman du.
Nora doa?
Bizitzako bidea?
Nere ostoa ez dut ikusten.
Laister, laister,
uratik bere bizitza bukatzen ari da,
salbamena eskatzen du.
Baina g...,
gizona itsua da, ez du entzuten.
Menditako belarrak haizearen
mogimenduz, agur esaten diote,
eta bizitza bukatzen doa,
ez, ez, ez joan.
Ez, ez ...
Ai makinaria!
Gizonen makinaria ostoa zati egin
du.
Azkenik bere anaientzat oiu bat
bota du.
Hodeiak negar egiten dute,
eguzkia estali da,
loreak eta belarrak tristetu dira,
gizonen harrotasunak ostoa hil du.
Bizitza hil du makinak;
bitartean...
gizona itsua da, ez du entzuten,
ostoa joan da,
bainan haizean beste bizitza bat
asiko du.

Polo.

GOIZEAN GOIZ JEIKIRIK

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,
urera joan ninduzun, pegarra harturik.

Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik
"heia nahi nuenez urera lagunik?"

-Nik, ez nuela nahi urera lagunik,
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz erran gaitik,
pegarra joan zerautan, besotik harturik.

Urera ginenian, ez ginen egartsu,
galdegin zautan ere: -"Zonbat urte tutzu?"

-Hamasei...hamazazpi orain'ez konplitu:
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.

Ettxerat itzultzeko nik dutan beldurra:
ez jakin nola pentsa amari gezurra!

-Neska, nahi duzua nik erakuts zuri,
etxerat etortzean zer erran amari?.....

Urxo xuri pollit bat, gabaz dabilana,
hark ura zikindurik, egotu naiz, ama!

-Dakigunaz geroztik zer eman amari,
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti!

Izengabeko

SOLUZIOAK

Kontrakoak jarri

Ederra/ Itsusia
 Gosez/ Aseta
 Zuzena/ Okerra
 Motza/ Luze
 Osoa/ Puskatua
 Hotza/ Beroa
 Abudo/ Mantso
 Goiti/ Beiti
 Idorra/ Hezea; bustia
 Lodi/ Mehe
 Bildua/ Zabaldua;
 Zakarra/ Fina
 Hautsia/ Kompondua
 Urrun/ Urbil
 Xaulia/ Traketsa; Baldarra.
 Ernea/ Zozoa
 Habila/ Moldagaitza
 Hauskorra/ Hauskaitz
 Eskuzabal/ Xuhurra

HUTSAK BETE

Ikusi zaitut eta etortzeko erran dizut.
 Koleratu nau eta zernahi erran diot.
 Ikusi dugu eta hemen zinela erran diogu.
 Etorri zaizu eta ikusi zaitu.
 Etorri zaio eta uste dut erran izanen diola.

22 Adberbio:

Aurrean	Maiz
Bitartean	gutxitan
Bertan	honeia
Ongi	gutxi
Gaizki	nahiko
Noski	bihar
Gainean	orain
Azpian	gero
Nonnati	gaur
Inon	etzi
Aitzin	
Behin	

DENBORAPASAGARRIAK

Hutsak bete

Ikusi n.u.u eta eman di..zu
 Maite g..t. eta emanen d.g.
 Etorri z..t eta erran d..t
 Ikusi z..t. eta etorko z..z.
 Ikusi d.t.t eta emanen d..t

	1	2	3	4	5	6
1					/	D
2		K		S	I	I
3					U	T
4	U	T	Z	E	M	U
5	T	U	U	L	I	
6	E		K		X	A

Zeharretara:




- 1.- Zuk hura ikusi
- 2.- Jakitako leitu
- 3.- Nik (zu) maite.....
- 5.- Nor nork-ean aditz laguntzailean plural
- 6.- Neurri gabekoa.

Goitik behera:

- 1.- Haiek zuri eman.....
- 2.- Ezetz erran
- 3.- Bera zuri etorri.....
- 4.- Galdu den gauza
- 6.- Haiek ikusi

HUTS DAUDENAK BETE,
 ETA ATERATZEN DIREN
 ITZAK GURUTZEGRAMAN JARRI

Honen aintzineko Ttapi Ttaparen alean, "Ilargiaren gorapen-beherapenak" izeneko artikuluan eta "Ondoak" idatzita dagoen lerroaldean, Gaizki ulertua baten gatik zentuz alderantziz paratu genuen. Barkatu.



BUKARA




Foto: Xabier Landa